



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2008-12-13

VIURTEA 1.583.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Iurretagoiena, Izagirre, Gallego, Renedo eta Estanga, aurkezpenean. N.URBIZU

## Trafikoa moztuko dute Elkartasun Krosean segurtasuna bermatzeko

**TOLOSA XI.** Elkartasun Krosa egingo dute hilaren 31n; bildutako dirua Kolonbiara bideratuko dute »3

**2009. urterako aurrekontuak onartu ditu Udalak, aho batez**

**AMEZKETA** 662.717 euro baliatuko dituzte; herrian eraikitzeko aukerak zabaldu nahi dituzte »3

**Eguberrietan egitarau berezia antolatu dute haur eta gazteei zuzenduta**

**IBARRA** Hilaren 22tik aurrera, antzerki emanaldiak eta ipuin kontaketak izango dira, besteak beste »6

## Arazo ugari N-1 errepidean izandako istripuak direla eta

**TOLOSALDEA** Villabona, Alegia eta Tolosa parean jazo ziren atzo goizean; ez zen inor zauritu »5



Ezker-eskuin: Maria Luisa Arriola, Jokin Bildarratz, Jose Luis Larrea eta Javier Mugica. I.T.

## IZAERA BERRITZAILEA SUSTATZEA HELBURU

**TOLOSALDEA** Enpresa Ekimen Berritzaileak sortzeko 2. Lehiaketa antolatu du Tolosaldea Garatzenek Mondragon Korporazioarekin »2

V I L L A B O N A K U L T U R A

## HERRIA KANTUZ

Herritarrez osatutako taldeak euskal abestiak abestuz herriko kale eta tabernak alaituko dituzte.

abenduak 13,  
larunbata

18:00etan  
BERDURA PLAZAN  
(kantuan hasi aurretik meriendatxoak izango da)

Villabonako Udala  
Kultura Batzordea



# Enpresa Ekimen Berritzaileak Sortzeko Lehiaketa martxan da berriro ere

**Ekonomia** » Tolosaldea Garatzenek Mondragon Korporazioarekin antolatatu du bigarren; 24.000 euro izango da saria.

## INIGO TERRADILLOS

Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak, Mondragon Korporazioarekin elkarlanean, Enpresa Ekimen Berritzaileak Sortzeko 2. Lehiaketa antolatatu du, «aldaketa teknologikoa, berritza-penaren kultura eta jarduera ekonomiko berrien sustapena bultzatzeko egiten duen jardunaren baitan». Pasa den urtean ekin zioten bideari jarraipena emango diote, beraz, helburu bera ardatz dutela, hau da, «izaera berritzaile edota teknologikoa duten enpresa ekimen berriak sustatzea».

Iazko lehiaketaren ildo bereak jarraituko ditu aurtengoak ere. Ekimen berritzaileak aurkezteko epea 2009ko martxoaren 31 izango da, eta banaka nahiz taldeka aurkeztu ahalgo da. Irabazleak 24.000 euro gordin jasoko ditu ekimena gauzatu ahal izateko, eta proiektu onartua izan den egunetik 24 hilabete izango ditu hori martxan jartzeko. Diru laguntza hori ideia osatzeko fasean eta en-



Maria Luisa Arriola, Jokin Bildarratz, Jose Luis Larrea eta Javier Mugica, asteazkenean, Obeki enpresan. I.T.

presa berea ezartzeko eta abiarazteko unean sortzen diren gastuak ordaintzeko bideratuta dago; ideien patenteen gastuak, zerbitzu edota produkzio instalakuntzen alokairuak sortzen dituen gastuak edota enpresako G+I+Bkin zuzenean lotutako pertsonalak sortutako gastuak, esaterako. Halaber, Tolosaldea Garatzenen doako aholkularitzak laguntza ere izango du.

Enpresa ekimen berritzaile onena aukeratzeko ardura izango duen epaimahaia Tolosaldea Garatzen, Mondragon Korporazioa eta Lehiberriren (Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntza Foroa) artean osatuko dute.

## «Berritza eta ekitea guztion eskura dagoen erronka»

Asteazkenean egin zuten ekimenaren aurkezpena Apata industrialdian kokatua dagoen Obeki enpresan. Hain zuzen ere, Obeki izan zen iaz Enpresa Ekimen Berritzaileak Sortzeko 1. Lehiaketa irabazi zuena. Bertan izan ziren Maria Luisa Arriola Bic Gipuzkoa Berrilan-eko zuzendaria, Jokin Bildarratz Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria, Jose Luis Larrea Ibermaticako lehendakaria eta Javier Mugica Obekiko zuzendari komertziala.

«Oso une zailak, arraroak eta ezberdinak ari gara bizitzen ekono-

mian», adierazi zuen Jokin Bildarratzek, eta «oso garrantzitsua da gelditzea, hausnarketa sakona egitea eta erabakiak hartzea». Bildarratzek 90-93 urteak gogoratu zituen: «oso une txarrak izan baitziren, eta eskualdean, esaterako, 1.000 lanpostu inguru galdu ziren; horregatik, elementu baikorrek geratu behar dugu». Hala ekimen hauekin proiektu berritzaileentzat lekua sortu nahi dela eskualdean adierazi zuen, eta Mondragon Korporazioaren laguntza eskertu zuen.

Jose Luis Larrea ekintzailearen inguruan aritu zen. «Berritza eta ekitea guztion eskura dagoen

## » DATUAK

- **Ekimena.** Enpresa Ekimen Berritzaileak Sortzeko 2. Lehiaketa.
- **Helburua.** Izaera berritzaileak duten ekimen berriak sustatzea.
- **Nori zuzendua.** Norbanakoak edo lan taldeak.
- **Saria.** 24.000 euroko diru laguntza, eta aholkularitza.
- **Epea.** 2009ko martxoaren 31.
- **Informazioa.** Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentzian: enpresa@tolosaldea.net helbidean edota 943 65 45 01 zenbakian.

erronka da, eta hain zuzen ere, etengabe berritza da enpresariak arrakasta izan dezaten ardatza». Hala, berrikuntzak izan behar dituen bost legegare ere azaldu zituen, hau da, Leonardoren zirkulua (sortzea eta modelizatzea), gainditu beharreko gatazkak, abenturaren sena, desafioa eta denbora. Era berean, berritzaiek dituen atalak ere aipatu zituen, hau da, ustekabean harrapatzea, aholku ematea, oroitzea eta aplikatzea, eta balore-ak kontuan hartzea.

Bestalde, Maria Luisa Larrea barnekontzultzari buruz aritu zen, eta Bic Gipuzkoa Berrilanean ekimen berrientzat ematen dituzten laguntzak eta aholkuak aipatu zituen.

Javier Mugicak Obekiren ize-nean Tolosaldea Garatzenen ekimena eskertu zuen, iazko proiektu irabazlearen berri eman zuen, eta bertan bildutakoak Obeki enpresa ezagutzera gonbidatu zituen.

## Laburrak

### Bigarren hiruhileko jardueretan izen-ematea

**TOLOSA** » Usabal kiroldegitik jakinarazi dute bigarren hiruhileko jardueretan izena ematea posible dela dagoeneko bazkideentzat. Gainerakoek hilaren 17tik aurrera egin ahalgo dute.

### Erleen inguruko hitzaldia asteazkenean

**TOLOSA** » Asteazkenean, hilaren 17an, Luis Mari Intzak *Erleak eta erlauntza* hitzaldia emango du Hel-duen Hezkuntzan, 16:00etan.

### Literaturari buruzko hitzaldia Uxue Alberdirekin

**TOLOSA** » Uxue Alberdik literaturari buruzko hitzaldia emango du datorren ostegunean, hilaren 18an. Kultur Etxean, 20:00etan izango da.

### Hodeiertz abesbatza ariko da bihar, Eibarren

**TOLOSA** » Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak bihar, 19:00etan, Eibarren emango duen *Gabon Kantuz* kontzertu solidarioaren baitan Hodeiertz abesbatza ariko da.

## Musika Eskolako kontzertua, gaur, Amartz auzoko lokalean

**Tolosa** » 80 ikasle ariko dira Koldo Tarragona eta Migel Angel Morenoren zuzendaritzapean, 19:00etatik aurrera.

### ERREDAKZIOA

Tolosako Eduardo Moco-roa Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute gaur, 19:00etan, Amartzoko Auzo Elkartaren lokal sozialetan.

Emanaldi honetan 80 ikasle inguru hurbilduko dira Tolosako Amartz auzora, Koldo Tarragona eta Migel Angel Moreno mai-suen gidaritzapean beren musika ezagupenak erakustera. Tronpetak, tronpa, bombardino, tronboi, txirula, oboe, klarinete, tuba eta saxofoien doinuak «une atsegin eta hungigarriak gozatzeko aukera izango dute entzuleek».

Musika tresnen arabera antolatutako talde desberdinetan banatuta, musika obra desberdinak interpretatuko dituzte ikasle gazte-txoek eta helduek. Besteak beste,



Musika Eskolako ikasleak. Denera, 80 inguru ariko dira gaur. HITZA

D.J. Alford, J.N. Kral, J.P.H. Sousa, F. Fugazza eta Adamo Volpiren obrak eskainiko dituzte.

Beste behin ere, amartzarrek eta Tolosatik bertatik etortzen diren musika emanaldi honetaz

gozatzeko modua izango dute, Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleei esker. Amartzoko Auzo Elkartek emanaldia eskaintzeagatik eskertu nahi ditu Musika Eskolako kideak.

- Euskarazko kazetaritza eskarmentua izatea.
- Donostia ezagutzea baloratuko da

# XI. Elkartasun Krosean segurtasuna bermatuko dute, trafikoa moztuz

**Tolosa** » Kolektoreko obrak direla eta, hilaren 31ko lasterketan ibilbidea zertxobait aldatuko da eta ordu erdi aurreratuko dute.

## NEREA URBIZU

Hamaikagarren aldiz jadanik, Samaniego ikastetxeak San Silvestre egunerako (hilak 31) Elkartasun Krosa antolatu du. Aurten berrietasun txiki batzuk daude lasterketaren baitan: ibilbidea zertxobait aldatu da kolektoreko obrak direla eta. Esaterako, aurtengoa ez da Triangulotik pasako eta Eskolapioen ondoko tuneletik igaroko da. Horretaz gain, trafikoa moztu egingo dute, korrikalariek ibilbidea lasaia go eta segurtasunez egin ahal izateko. Bukatzeko, ordua ere aldatu egingo dute. «Ordu eta erdi lehenago hasiko da, ikusten genduelako berandutu egiten zela bestela».

Lasterketa honen xedea laguntzeara izango da, eta izaera beti kiroltasunezkoa izango da. «Gero eta jende gehiago hartzen du parte lasterketa honetan». Cocuyo Gobernuz Kanpoko Erakundearentzat izango da bilduko duten diru guztia, Kolonbian lanean ari den batentzat, Arantxa Iruretagoiena Samaniegoko ingurugiroko arduradunak argitu bezala.

Hiru urte daramatzate honela, laguntza ematen eta Coyuko GKEK Kolonbian duen proiektu bati laguntza ematen; El Porvenir nekazari komunitateari, hain zuten. Kolonbiako udalerriri hartako Guabasen erreak duela urte batzuk atera egin zen eta «helburua erreka horren arroaren desestabilizazioa konpontzea da», ingurumen kudeaketa landuz.



Arantxa Iruretagoiena, Mikel Izagirre Samaniegoko zuzendaria, Iban Gallego kirol koordinatzailea, Oscar Renedo kirol zinegotzia eta Arantxa Estanga kirol teknikaria. Gallegok Tolosako Udala eta Aralar kirolak eskertu nahi izan zituen. U

El Porvenir komunitateko Guillerme Leon Valencia ikastetxearekin anaituta dago Samaniego, bi ikastetxeak topatu zirenean konturatu baitziren ikuspegi hezitzaile eta filosofiko berbera zutela: elkartasun, ingurumenaren aldeko defentsa, aniztasunari errespetua eta genero berdintasunaren inguruan. Samaniegok proiektuari laguntza hilaren 31ko krosaren bidetze emango dio berriz ere. Leku haietara liburuak eta berriak iristea ahalbidetuko da emango den diru laguntzarekin.

### «Elkartasun kilometroko»

Elkartasun krosean ez da lehiaketa garrantzitsua, «elkartasun kilometroak dira egiten direnak. Horregatik, jendea parte hartzeri animatu nahi dugu». Iaz inoiz baino jende gehiago hartu zuen parte, 200 heldu eta 200 haur ingurure-

kin, hau da, 2006an arituz zirenaren bikoitza. Aurten, lehenengo 200 haurrentzat kamisetak izango dira eta helduentzat, berriz, 300.

Beraz, kirola egitea eta behar dutenei laguntzea eskutik doaz, urteko azken egunean egingo den krosean.

### Aurten, saria 3 txirrundulari

Ibilbidea maila ezberdinak banatu dituzte. Benjaminek (9-10 urte) 800 metro egin beharko dituzte, alebinek bikoitza, eta infantilek ia hiru kilometro eta helduekin batera aterako dira korrika egitera, 16:30ean. Helduek, aldi berean atera baina 5.050 metro egin beharko dituzte (bira bat beharrean, bi).

Haurrek ez dute izena eman beharrik, ikastetxearen bitartez egingo baitute, baina helduek Aralar Kirolak dendan eman beharko

## » KROSAREN INGURUAN

- **Eguna.** Abenduak 31.
- **Ordua.** 15:30etik aurrera, txikienetatik hasita.
- **Lekua.** Zerkausia.
- **Izen-emateak.** Helduek astelehetik aurrera Aralar Kirolak. Egunean bertan Zerkausian.
- **Prezioa.** Dendan 5 euro, egunean bertan 8 euro. Haurrek doan.
- **Elkartasuna.** Jasotako dirua Guabasen inguruko proiektuak bultzatzeko erabiliko da (Kolonbia).

dute izena astelehenean aurrera, bai banaka, edota launaka ere.

Urtero sari berezi bat ematen dute. «Aurten hiru txirrundulari saritu nahi ditugu eta hona ekaritzen ahaleginduko gara: Itsaso Leunda, Irene San Sebastian eta Leire Olaberria. Hirurak gure ikasleak izan dira gainera».

# 662.717 euro, datorren aurrekontuetarako

**Amezketak** » Herrian eraikitzeko aukerak zabaldu nahi dituzte baina ez dira adostasunera iritsi hiru udal taldeak.

## ERREDAKZIOA

Amezketako azken ohiko bilkuran Udalak datorren urteko aurrekontua onartu egin du, denen aldeko botoekin. Guztira 662.717 euro baliatuko dute, hainbat proiektu gauzatzeko. Jauregi ondoko eremuko hirigintza arloko hitzarmena ere behin betiko onartu zuten, denen aldeko bozkarekin.

Bestalde, gaur egun indarrean dagoen planak agintzen duen erai-

kigarritasuna hazi egin nahi da, baina ez da aurkeztutako proposamenaren onartu, 2 aldeko boto eta kontrako 4rekin. Besteak beste, emandako arazoak hau izan da: «Pabeloietako gaia aztertu behar denean hiru taldeen eta pabeloietako bi jabeen arteko bilera egiteko eskatu zen eta ez da horrelakorik egin, talde bakarra egon baita jabeekin».

### Batzordeetako informazioa

Hirigintza batzordeak arazo baten berri eman zuten: «Berriz ere ura galtzen ari gara, orain 50 m3 egunean». Honekin batera «galdetzen zaie bi talderi (AEL eta EAE-ANV) «ea ez al duten pentsatzen berriz aztertzea Kontsorzioaren sartzeara,

galera hauek herriko ekonomiari ez kaltetzeko». Bi taldeek ez daukela Kontsorzioaren sartzearen alde erantzun zuten.

Kultura, ongizate, zerbitzuak eta ingurumenaren batzordea. Euskaraz ikasteko talde bat osatu zen eta horretarako irakasle baten bila dabilta.

Ugarten «kotxeak abiadura handian ibiltzen dira» eta Ugarten ezekiz «Amezketan ere». Ondorengo egun batean GFAko Errepi-deetako Zuzendariarekin hitz egingo da, lurreko koxkak jartzeko edo irtenbideren bat emateko.

Irurako Ikastolak, bestalde, 2009. urtean, Rally Sprinta antolatzea baimena eskatu dio Amezketako Udalarri, aurtengoa dena-

## » 2009KO INBERTSIOAK

- **Plazako eta Ugarteko frontoietarako.** 89.110 euro.
- **Tolosaldeko Garatzen.** 14.188 euro.
- **Bus geltokia.** 8.499 euro.
- **Liburua.** 19.000 euro.
- **NNSS aldaketa.** 18.000 euro.
- **Irisgarritasun plana.** 13.920 euro.
- **Baserrietarako bideak.** 200.000 euro.
- **Kultur etxean.** 300.000 euro.

ren antzekoa, Amezketako plazan bukatuz. Helburua ikastolaberriaren maileru osoari aurre egiteko dirua lortzea da eta diru-iturri berriak bilatzen jarraitu behar dute.

# Presoen aldeko Elkartasun denda irekiko dute gaur Gabonak bitarte

## ERREDAKZIOA

Gaurtik aurrera eta Gabonek iraun bitartean, Tolosan euskal preso eta etaheslariaren aldeko Elkartasun denda zabalduko dute. Tolosako Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak prestatu du eta «presoei jasan behar duten sakabanaketa politikoak sortzen duen odoluste ekonomikoari aurre egiteko» balioko du jasoko duten dirua.

Denda 19:30ean irekiko dute Korreko kaleko 7. zenbakian, eta urtero ohi bezala, Tolosako komertzioetatik pasako dira gero «ahal eta nahi duenak bere aportazio ekonomikoa egiteko».

Tolosarren elkartasuna alde aurretik eskertu nahi izan dute eta «gureak berandu baino lehen etxean izan ditzagun besarkada bat eta urteberri ona opadizuegu».

## Laburrak

### Gaur 19:00etan AHTren aurkako manifestazioa

**ALEGIA** » Gaur, Alegiako XXI. urteurrena ospatzeko babarrun-jatea, bertsolariak eta triki-poteoa izango dira. 14:00ak aldera hasiko da Gaztetxean, eta gero herrira joango dira trikitilarien laguntzaz. 19:00etan AHTren aurkako eskualde mailako manifestazioa izango da. Hesian eta Disorders taldeen kontzertuak 22:00ak aldera hasiko dira.

### Osteguneko hitzaldia hilaren 29ra atzeratu dute

**ALEGIA** » Alegiako Gaztetxearen urteurrena ospatzeko hilaren 18rako hitzaldi bat antolatu zuten baina hilaren 29ra atzeratu dela eman dute jakitera. Hitzaldia Amairuko Gazteluuri buruzkoa izango da Aranzadiko Juantxo Agirrekin.

**ZUZENKETA.** Olaetxea lizartzarak gaur jokatu du Lau T'erdiko bigarren mailako Pilota Txapelketako finala Tolosan, eta ez bihar, atzoko alean agertu bezala.

## Iragarki laburrak

### LANA

- **Abeslaria.** Erromeri eta ezkontza taldeak abeslaria behar du. Telefonoa: 658 70 11 96.
- **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prestatu. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 944 604 edo 695 70 82 71.

**KULTURA  
MARA  
MARA**

ekar

## Hiru istripu N-1eko eskualdeko zatian

**Trafikoa** » Irungo noranzkoan Villabona eta Alegian izan ziren; Gasteiz aldera, Tolosa parean izan zen.

### ERREDAKZIOA

Lauzpabost istripuk arazo handiak eragin zituzten atzo goizean N-1ean, Andoain eta Ikaztegieta tartean izan zirelarik, eta eskualdean izan ziren horietako batzuk.

Istripurik handiena Tolosa parean gertatu zen, Gasteiz aldera: hiruzpalau autok eta kamioi batek elkar jo zuten goizeko zazpi eta erdiak inguruan, eta kamioiaren zaren zati bat zoruan zabaldu zen. Ez zen inor zauritu, baina auto ilarra luzeak eragin zituen N-1ean, baita Anoeta eta Tolosa elkartzan dituen errepidean ere.

Goizeko 08:00etan Alegia eta Villabonan ere bi istripu izan ziren Irungo noranzkoan, baita Ordizia, Andoain eta Itsasondon ere.

## 'Herria Kantuz' ekimen berriaren lehen saioa egingo dute gaur

### ERREDAKZIOA

Orain dela aste batzuk aurkeztu zuten *Herria kantuz* ekimen berria Villabonan. Bada, gaur egingo dute lehen saioa, 18:00etatik aurrera. Hasieran merendatxo bat egingo dute eta jarraian herritik ibiliko dira kantuan, «herritarrek euskal abestiak abestuz herriko kaleak alai dezaten».



## Pilotari gazteak trebatzen

**ANOETA** » Frontoiarengatik antolatuta zizuten atzoan Kirol Astearen baitango ekitaldiak. Arratsaldeko lehen orduan pilota sustatzeko joko desberdinak egin zituzten. Ondoren gomazko paletako pilota izan ziren

frontoian bertan. Gaurkoan cycling-aren txanda izango da, maratonia egingo baitute kiroldegian bertan. Biharkoarekin itxiko dute Kirol Astea, ginakana familiarrarekin. I.TERRADILLOS

## B Blogteka info

### Larunbatean BECera! Euskaraz bai!

UZTURRE, 2008ko abenduaren 8a

Kaixo, aspaldiko lagunak! Argitxo naiz, Argitxo iratxoa. Banuen zuei zer edo zer idazteko gogoia! Bai horixe! Baina badakizue askotan zer gertatzen den: nahi eta ezin! Nahi, aspalditxoan zuen berri izan gabe nabilelako: eta, ezin, zuei nahiko nukeen bezain eskutitz dotorea idazteko berririk ez dudalako. Izan ere, lan askorekin gabiltza Mari eta biok: negurako egurra moztu eta kobazulo ondoan pilatan antolatu, fruitu lehorrak bildu (gaztainak, in-txaurrak, urrak...), ehiztarietxendian axola gabe utzitako kartutxoak bildu, urtxintxei eta Uzturre inguruan bizi diren gainerrako lagun animaliei negurako lo-zorroa prestatzen lagundu... Puf, a zer lanak!

Neka-neka eginda nenbilenez, leher eginda, gaur, astelehena, atsedean hartzea erabaki dut. Zer iruditzen zaizue? Merezitako

atsedena, ez? Jo, egia esan, kosta zait eskutitza idazten hasia. Ez nekien nondik hasi ere! Hainbeste gauza nituen zuei kontatzeko... Halere, arkatza martxan jarri aurretik, momentu batez pentsatzen aritu naiz eta galdera hauexek egin dizkio neure buruari: «Ea, Argitxo, nola sentitzen zara? Zure zein gauza kontatu nahi dizkiezu Laskoraingo lehen eta bigarren mailakoei? Horietatik zein kontatuko dizkiezu gaur? Eta, zein hurrengo batean?...» Listo! Sentitu, pentsatu eta ekin! Edo beste era batera esanda: sentitu, esan nahi nizuena aukeratu eta idatzi! Halaxe hasi naiz eskutitza idazten. Eskerrak pixkat pentsatzea aukeratu dudana, bestela...

Aizue, lagunak, zer moduz pasa zenuten abenduaren 3an? Ba al dakizue Euskararen Eguna zela? Eta nik urteak egin nituela? Ba, bai, nire urtebetetze eguna ere izan zen. Jakin nahi al duzue zenbat urte ditudan orain? Ba, lehengo urtean baino bat gehiago eta datorren urtean baino bat gutxiago. Je, je!

Ez dakit konturatuko zineten, baina Sakramentinoetara bisita ere egin nuen. Haur Hezkuntza-koekin egon nintzen arratsaldean. Zuingana joateko asmoa ere banuen, baina ez zidan denborarik eman, Uzturreko gure kobazuloan sua piztuta utzi nuen eta, hura ez itzatzeko, korrika eta presaka joan behar izan bainuen. Beste egunen batean azalduko naiz, akaso, sorpresatxoaren bat ematera.

Gaurkoan, ordea, kontu garrantzitsu batekin natorkizue:

Gaur, Barakaldoko BECen euskaraz bizi garenok eta aurrerantzean ere halaxe bizi nahi dugunok hitzordua daukagu. Euskararen alde lan asko eta asko egiten duen Kontseiluak bere 10. urteurrena ospatuko du eta esan didatenez Laskorain ikastolakoak ere, nahiz gurasonahiz irakasle, nahiz ikastetako, gonbidatuta gaude. Gurasoei abisatu, e! (...). [www.kontseilua.org](http://www.kontseilua.org) helbidean informazio gehiago.

Argitxo iratxoa  
**Laskorain ikastola**  
<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/laskorain>

69€  
TB digitala kuotarik gabe eta deskodetzailerekin

Olentzero ala Erregeak?

15€  
NOKIA 7610 Supernova, 90 X 1 tarifarekin



Aurtengo Gabonetan, ez egin uko ezeri

TB digitala kuotarik gabe + Eraman biak } 49€  
NOKIA 7610 Supernova }  
Ikerbik indarrez

Zure Euskararekin zure saltokira, edo beste 1117 telefono-eremura



## BE Cera gerturatuko dira, berriz ere

**IBARRA** ● Egun berezia da gaurkoa milaka euskalazentzat; Kontseiluak hamar urte betetzen ditu eta *Euskaraz Bai* adierazpena aurkeztuko du BE Cen 18:00etatik aurrera *Pauso bat harago* lelopean. Izan ere, orain hamar urte sortu zen Kontseilua eta bere *Bai Euskarari* kanpaina. Aipatu

kanpainaren amaieran Euskal Herriko bost kirol estadio bete zituzten, gainera, eta 120.000 lagun baino gehiago bildu ziren guztira euskararen alde, horietako batzuk Ibarrik gerturatuko ziren estadioetara, argazkian ikusi daitekeen bezala. Gaurkoan ere han izango direla esan dute. HITZA

## Laburrak

### Astelehenean hasiko da Elkartasun Azoka

**BERASTEGI** ● Astelehenean, hilak 15, hasiko da Elkartasun Azoka Berastegin. EA21eko Ingurumen batzordearen ekimena da azoka eta honenkin etxean «alfer-alferrik pilatzen diren objektu» guzti horien berrerabiltzea bultzatu nahi dute. Azoka hilaren 22rte egongo da zabalik Ertoetako lehen solairuan astelehen, astearte eta ostiraletan 16:30etik 18:00etara. Asteburuan berriz, 11:30eti 13:30era egongo da irekita.

### Krisi ekonomikoari buruzko hitzaldia

**ZIZURKIL** ● Aiztondo AHT Aurkako Taldeak krisi ekonomikoari buruzko hitzaldia antolatu du datorren asterterako, hilak 16. Taldeko bi kidek, hortaz, krisi ekonomikoaren eta AHTarekin agintariak bultzatu nahi duten gizarte eredu, zein eredu ekonomikoaren arteko loturaz hitz egingo dute. Hitzaldia Zizurkilko Atxulondo kultur etxean izango da asteartean 19:00etan.

## Haur eta gaztetxoei zuzendutako programazio berezia, Eguberrietan

**Ibarra** ● Antzerki emanaldiak eta ipuin kontaketa izango dira, besteak beste, hilaren 22tik aurrera.



BehiBí's taldeak *Rosi erosi* antzezlan eskainiko du hilaren 29an. HITZA

#### ERREDAKZIOA

Ibarra Kultur eta Gazteria Batzordeak Eguberrietarako haur eta gaztetxoei zuzendutako programazio berezia antolatu du. Hilaren 22an hasiko dira ekintzak eta 30 arte iraungo dute. Egun horietan zehar antzerkia, ipuinak eta jolas parkea izango dute herriko gaztetxoek.

#### Jolas-parkea Belabietan

Hilaren 22an haurrentzako jolas parkea izango da Belabietan pilotalekuan 10:30etik 13:00etara eta

16:00etatik 18:30era. Hilaren 23an, aldiz, Ixabel Milleten eskutik *Gabonetako euskal ipuinak* kontaketa saioa antolatu dute 11:30erako Benito Izagirre kultur etxean. Hilaren 29an, BehiBí's taldearen eskutik *Rosi erosi* antzerki emanaldia izango da 11:30ean Kultur Etxean.

Hilaren 30an Txalo taldeak *Magia teiatuetan* antzerki-emanaldia izango da 11:30ean Kultur Etxean.

Horiek horrela, batzordeak haur, gaztetxo, guraso zein aitonaonei bertaratzeko gonbita luza-tu nahi diete.

## Petronorren kontra galdu du Lakunzak

**Villabona** ● 4-3 galdu zuen Villabonako areto-futboleko taldeak; gaur etxean izango da gasteiztarren kontra.

#### ERREDAKZIOA

Villabonako Transportes Lakunzak Gallartan izan zen pasa den asteburuan Petronorren aurka jokatuko. 4-3 galdu zuen eta porrota, gainera, mingarria izan zen Lakunzak hobeto aritu zelako.

Ander Nuñez, Ibon Aranzabe, Lander Uzquidun, Gari Garcia eta Hautsi Izagirre izan ziren zelairatu ziren lehen bost jokalaririk, nahiz eta Oskar Urbano, Ander Etxeberria, Asier Etxaniz, Joseba Batalla eta Sinoe Sanzek ere izan zuten jokatuko aukera.

Azkenean Transportes Lakunzak hiru goletako bi Ander Etxeberriak sartu zituen eta Sinoe Sanzek sartu zuen bestea.

Petronor indartsu atera zen zelairera lehen minututik eta azkenean lortu zuen markagailua bere alde jartzea. Bizkaitarra izan zen eguneko lehen gola, baina Lakunzak erreakzionatu eta berehalakortu zuen berdinketa.

Bigarren zatian ere bizkaitarrek abiadura handiarekin jokatzen jarraitzen zuten eta azken minutuetan sartutako golarekin lortu zuten garaipena.

Asteburu honetan, gaur, Gasteizko Suisaco Armenia taldearen aurkako partida du Lakunzak. Olaederra kiroldegian, etxean, lehiatuko da hortaz, 18:00etatik aurrera hiru puntu garrantzitsu lortzeko.

## USABALGO LASKORAIN IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEA

Bazkide-Lagun, agur:

Urteko Ohiko Batzar Orokorra dei egiten dizut, Laskorain Ikastolan, Usabalgo egoitzan burutuko dugunera. Batzar hau abenduaren 17an, asteazkena, izango da arratsaldeko 19:30ean hirugarren deialdian. (lehen deialdia 18:00etan eta bigarrena 18:30ean).

**Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:**

- 1.-Aurreko urteko aktaren berri eman.
- 2.-Balantzea eta Aurrekontua. Kuotak.
- 3.-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.
- 4.-Partaide berriak Juntan.
- 5.-Akta onartzeko bi kide izendatzea.
- 6.-Galdera eta eskeak

Tolosan,  
2008ko abenduaren 13an  
Batzordeko Lehendakaria

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN  
**PROBIGURRAK**

**Jogurta**

Mahala baserría - 90491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Hautetsi independentisten aurka eskariak egin dituzte

**Leitza** » ANV-EA Eren aurkako «neurriak eta egin beharrekoak» aipatzean Leitza kasua aipatu dute azken egunotan.

## ASIERIMAZ

Nafarroako 265 udalerri 107 milioi euro jasotzeko aukera izanen dute, Espainiako estatuak herrietan inbertsioak egiteko sortu duen fondotik. Udalerri hauetako bederatzitan ANV-EAEk dauka alkatetzak eta horien artean Leitza azaltzen da.

## Politikarien esanak

Espainiako Kongresuan UPNren diputatuak, Carlos Salvadorrek, honako hau eskatu zion Gobernuari: «Fondo hauetatik ANVk gobernatzen dituen udalek finantziazio extra bat jasoko dutenez, behartuta zaudete pertsona bat izendatzera, bereziki diru haunola kudeatzen duten lupaz kontrola-

tzeko. Bere garaian, ANVri dagoen lekuan egoten zuek utzi zenioten eta ondorioz, benetan zor diguzuela uste dut, espainiar guztiei zor diozue». Maria Caballerok, UPNren senatariak, Gobernuari «ANV udaletxeetatik kanporatzeko borondate irmoa» eskatu zion, «UPNrentzat ezinbesteko kontua» dela argudiatuz.

CDN alderdiak bere aldetik, esatauk «ANV gobernuetatik kanporatzeko nahiko instrumentu eta bitarteko eduki behar dituela» azaldu zuen.

## Leitza Udalean hautetsi independentistak

Azkenik, Mariano Raxoik, PPren buruak, «ANVk gobernatzen dituen udaletxeetan, hauteskundeak egitea» eskatu zion Alfredo Pererubalcaba Espainiako barne ministroari. Hauteskunde hauek, Euskal Autonomi Erkidegokoekin batera egitea nahi omen zuen Raxoik, autonomikoekin batera, hau da, 2009rako martxoan.

Leitza Udalean gaur egun ez dago ANV-EAE, Espainiako Auzitegi Nazionalak Baltasar Garzon epaileak 2008ko otsailaren 8an, alderdi honen jarduerak bertan behera utzi baitzituen.

Espainiako epailearen erabaki honen aurrean, hauteskundeetan ANV-EA Eren zerrendetan aurkeztu ziren herritarrek, hautetsi independentista izatera pasatu ziren, udal zereginak ANVren kide baino herritar bezala ordezkatzuz.

Honen adibide garbia Arrasaten (Gipuzkoa) gertatu zen, Ino Galparsoro alkatea atxilotzeko Garzonnek erabili zuen argudioan, «jarduerak bertan behera dituen alderdi baten izenean hitz egitea» leporatu zion.

Espainiako legediaren arabera eta orain arteko kontutuan hartuta, Leitza hautetsi independentistek ANVren izenean hitz egingo balute, legearen aurka ariko liriteke. Aldi berean, honek ez du esan nahi norbanako bezala udal jardueretan ezin dutenik egon.

# Gustoko lekun...



## » Herrira begira

**Aimar Sagastibeltza**  
Futbol jokalaria

**E**guberritako oportxoak aiatzen dienen futbol taldek beren momentuko egoera aztertze-ko joera izaten due; ondorioak atera eta erabakik hartzeko garaie da. Gure kasun, bi partidu falta zaizkiu urtea bukatzeko eta egie esan ez-tauke itxure oso xamurre gure egoerak. Beño beno, datozen bi partidu hotan gutxinez lau puntu lortu eta eguberrik lasai pasakot-tun siñismena dauket.

Azken partidue jokatzien Gasteizen izan giñen eta Alavesen aurka berdinketa lortu giñun (1-1). Zorritxarek hoixe da baldintzatzen ai zaiun arazoa; izane, sekuleko berdinketa pille inditu, eta jakiñe denez, astero puntu soil bat gehituz dien taldea mantxo mantxo zuloan sartzen da. Deus gutxi reko balio do.

Pertsonalki ezin dot ukatu oso gustora sentitzen naizenik. Oain dela bi astezko debuten ondoren, Alavesen aurkako partidureko konbokatue neon. Jakiñe, ikeraga-

rrizko ilusioa intzien Mendizorro-tza bezelako estadio baten eottek. Gasteizen hiru urte ikasten eondu ondoren zeñek esan egoera hoi bizi behar nunik. Oroitzapen hun-kigarrik izan nitun. Ez nuke nega-tiboa izan nahi, beño beharbada sekulen ezta errepikatuko. Partidure bueltatuz, minutun batzuk jolasteko aukera izango nun espe-rantzaz joan nitzen, beño kasu honan ez nun suerte hoi euki.

Bestalde, idazteko aukera dotela aprobetxatuz partidure hurbildu zien hainbat lagun eta familia-ko eskertu nahi nituzke hemendik, eta baita joateko aukera euki etzuen beste hainbat. Ezta kizue zeñen politte eta gustagarrie den zuen babesa. Eta noski, Gasteizeaño etorri eta unpare bat jaigiñeuzke-la aprobetxatuz nola ez gelditu Leitzen, aipatu berri dítottoten jenden ingurun. Zeñen azkar pasatzen tzaiten denboa zuen konpa-ñin.

Hoi bai, ze pena eman tzien lau terdiko finala ikusi eziñek! Aitor-tzet nere prebisioak eztiela bete eta ondorioz txapela ezta Leitza etorri. Nora eta Goizuta joan da. Egie esan, finalen itsu-itsu Irujon alde neon eta emaitza jakin nunen amorrazio dextekin reaktionatu nun. Holaxeko «prontoa» dau- ket, jeje. Beño beno, espero dot da- tozen txapelketatan leitzaurrek ber- ren ohiko protagonismoa berreskuratzea.



# Herriko kantujiraren bigarren saioa

**LEITZA** » Lehen saioarekin azaroan ausartu ziren. Bigarren saioa atzo egin zuten eta gustatu gainera. Hemendik aurrera, hilabeteko bigarren ostiralean elkartuko dira Aurrera Elkartean Kantujiraren goxotasun

bila. Zeintzuk? Abestea gustuko dutenak, hau da, nahi duen guzua. Izan ere, Leitza kantuzale talde batek habian jarrirako ekimenak 40 lagun inguru biltzen ditu jada euskal kantu tradizionalen doinuetan. A.

## Laburrak

### Hilaren 16ean, asteartean, 3 ordu argi indarririk gabe

**LEITZA** » Iberdrola enpresatik deitu zuten Leitza udaletxera atzokoa, udalak ohar baten bidez zabaldu zuenaren arabera. Enpresak aipatu zuenez, abenduaren 16ean, asteartean, herri guztian zehar argi indarra moztuko omen dute hiru orduz, 09:00etatik 12:00etara hain zuzen ere. Iberdrolaren esanetan, konponketa orokorra egiteko erabiliko dute mozketa hau. 12:00etatik aurrera argi indarra Leitza normaltasunez berreskuratuko dela aurreikusten dute.

### Mendiko federatu txartela egiteko aukera Aurreran

**LEITZA** » Aurrera Elkarteko Mendibil Mendiko taldeak 2009ko federatu txartela ateratzeko edo besterik gabe, gai honen inguruan informazioa lortzeko aukera eskainiko du herrian. Abenduaren 17an, asteazkenean, eta hilaren 19an, ostiralean, Aurrera Elkartean egongo dira mendi taldeko kideak 19:00etatik 20:00etara. Bertan alde batetik informazioa jaso ahal izango da. Bestalde, federatu txartela atera nahi duenak, NAN zenbakia eta dirua eraman beharko ditu.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



6°  
3°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	5°
HOTZENA	3°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 034. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Zinema

■ **Villabona.** *El niño con el pijama a rayas* gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean. *Space Chimps* gaur eta bihar 17:00etan.  
■ **Tolosa** Helena Tabernaren *La buena nueva* filma emango dute euskaraz Leidor aretoan gaur 22:30ean eta bihar 19:30ean. *Quemar despues de leer* gaur 19:30ean eta bihar 22:00etan. Etzi, 20:30ean (ikuslearen eguna).

### Deialdiak

■ **Alegia.** Gaztetxearen XXI. urteurrena: babarrun-jatea, ondoren herriko bertsolariak, triki-poteoan herrialdera gero eta zahagi ardoa, 22:00ak inguruan Hesian eta Disorders taldeen kontzertua.  
■ **Tolosa.** Zuzeneko musika eta strip show mistoa Fronton kafetegian 23:30ean.  
■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkartearen 50. urteurrenoko liburuaren aurkezpena eta DVDaren proiektzioa 12:00etan Kultur Etxean.  
■ **Villabona.** Herria kantuz: Berdura plazan 18:00etan mokadutxo bat hartu eta 19:00ak aldera abiatuko dira kalez kale kantuan.

### Musika

■ **Tolosa.** Euskararen Egunaren



## Gatibu taldea, gaur Bonberenean

**TOLOSA** ● 2002. urtean egin ziren ezagun euren *Musturek Sartunde* abestiarekin. Euskal Herriko gazte gehienek dantzatu dute noizbait honen erritmorra. Sei urte beranduago, Durangoko Azokarako labeetik atera berri du Gatibuk hirugarren eta azken diskoa, *Laino*

*guztien gainetik, sasi guztien azpitik*. Laukoteak Tolosan aurkeztuko du lana, gaur, 22:30etik aurrera Bonbereneako taula gainean. Sarrerak Bonberenean bertan eskuratu ahalko dituzte interesatuek, 5 euroren truke. **HITZA**

karietara antolatu diren ekitaldietan azkena aurkeztuko dute. Zerkasian, 20:30etik aurrera Prefosta taldearen Euskal kantagintza emanaldia izango da, Udaleko Euskara Batzordeak antolatuta.

### Kirola

■ **Zizurkil.** Kiroleko 12 orduak: 16:00etan haur ginkana eta bizikleta jokoak Otaño frontoian, ondoren merienda eta opari banaketa, 18:00etan Jon Tecedor frontulariari omenaldia Intxaur frontoian eta 22:30ean 12. Gau Krosa.  
■ **Ibarra.** Kirol Astea: 15:00etan Mahaiko tenisaren ikastaroa 10 urtetik gorako gazteentzat; 15:00etan Bigarren mailako liga jardunaldia Usabal Tolosa eta Club Natacion Pamplonaren artean eta 16:00etan Xakeko Gipuzkoako Bakarkako partida azkarren txapelketa.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre Aizpuru margolariaren oleoak ikusgai Aranburu Jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36.

**HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.**

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

943 671 427

**MIRARI Parafarmazia**

- HAURREN ELIKADURA ETA HIGIENEA
- UMEENTZAKO JOSTAILUAK
- HAURREN ETA HELDUEN DERMOKOSMETIKA

Kale Berria, 56 • Billabona • Tel.: 943 692 351  
parafarmazia.mirari@telefonica.net

**Orain da garaia**

Euskal Gobernuak, etxebizitzak, buleta edo baserrietako jabeentzat, 1.650 € arteko diru laguntzak eskaintzen ditu etxebizitzak berritzeko, energia aurrezku berrak duen leho zaharrek aldatzeko.

Zufiteki-ra delu. (Baina bizitzak eta europar salidareko zifurtagaria duten egurrezko lehoen fabrikazkoan erabiltzeko) eta eskuzko bideratzen lagunduko diruak. Aurrezku 22% zure leho berritan eta nequaz gozatu.